

zakilixut

© Olariagak



Asier Iturriagaetxebarria | BILBO

ATZEKOZ AURRERA

Joan den abenduaren 18an hasi zen tranbia Bilboko kaleetan gora eta behera ibiltzen. Pozarren hartu zuten bilbotar askok garraio bide berria, zaharren batez ere, baina, apurka-apurka, baretuz joan da hasierako ilusioa. Lehen estetiko polita eta moderno zena, ilundu egin da denborarekin. Eta horretan zeresan handia daukate tranbiari mugitzeko indarra ematen dioten kableek. Hiri-kaleetan ari sendo batzuk zintzilikatuta ikustea ez dute begi onez ikusten bilbotar askok.

Hiriaren egiturari tranbiak zauriak eragingo zituela konturatzen lehenengoa izan zen Zazpikaleetako Bihotzean auzo elkarteak. Joan den urrian, tranbia inauguratu baino hilabete bi lehenago, elkarteak gutuna igorri zion Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari, eta bertan zenbait neurri hartu behar zirela proposatu zion. Ez zuten erantzunik jaso. Iñaki Uriarte arkitektoa arduratu da Bihotzean elkarteak laguntzeaz, eta EUSKALDUNON EGUNKARIARI adierazi dionez, Bilboko tranbia herritarrei egindako «iruzur handia» da.

Aztarna arkeologikoa Atxurin

Hori esateko, hainbat arlotan oinarritzen da Uriarte, baina



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Tranbiaren inguruko azpiegiturak haserrea eta kezka sortu dute zenbait bilbotarrengan.

lako. Nik neuk ezin dut ulertu nola ipini duten tranbiaren geltoki bat Erriberako arkupeetan, horko bereizgarri arkitektonikoak hondatuz», zehaztu zuen arkitektoak.

Uriarteren ustez, garrantzia arkitektoniko eta historiko handia daukan beste eraikin bat ere hondatzen du tranbiak: Arriaga antzokia. «Arriaga antzokiaren atzean geltoki bat eta beste elementu batzuk ere ipini dituzte, baina hori ez da legezkoa. Arriagaren ingurua babestuta dago, eta hor ezin da ezer eraiki».

Tranbiaren kableak eusteko erabilitako sistemak ere ez ditu gogoko Uriartek, leku batzuetan zutoin handiak ipini dituztelako, eta Zazpikaleetako inguru historikoaren oreka arkitektonikoa apurtu duela. «Babestu beharreko eraikinetatik hurbilegi ipini dituzte, eta ikusmen kalte handia eragin», argitu du. Bestalde, bilbotarrei tranbiarekin egin zaien «iruzurra» beste hiri batzuetarako baliagarria izan beharko litzatekeela azpimarratu du: «Guztiok dakigu beste proiektu batzuk ere badaudela. Euskal Herriko beste hirietakoei kontuz ibiltzeko esan behar zaie, tranbia ipintzeak ikusmen eta zarata kutsadura eragiten duelako».

Tranbiak eragindako lehen zauriak

Tranbiak Bilboko eraikin historikoetan kalteak eragiten dituela salatzen du Zazpikaleetako Bihotzean elkarteak

minik handiena eragiten diona da Atxuriko aztarna arkeologikoak apurtu izana. «Lotsagarria da nola estali zuten aurkitutako aztarnategia, korrika eta presa-ka, ia aztertu ere egin gabe».

Hala ere, Bihotzean auzo elkarteak egindako salaketako atalik deigarriena da tranbiak eraikin historikoetan kalteak eragiten dituela, batez ere Erribera kaleko arkupeetan. Uriar-

tek azaldu duenez, inguru horrek monumentu izendapena dauka. «Hori baino gehiago ere bada. Bilboren historiako zati garrantzitsua da, hiriko Plaza Nagusia izandakoaren zatia de-

arriaga (Gasteiz), bilintx (Donostia Tolosa Bergara), ramos (Donostia), urretxindorra (Bilbo), mattin (Baiona), herriak (Bilbo), xalbador (Iruña), xalem (Iruña), bertso-hop (Irun)

www.megadenda.com

Zure aukera musika eta liburutik